

ARTE-BITARTEKARITZA MINTEGIA
TXURRAK ETA **MENINAK**



2019ko URRIAK 4 ETA 5, OSTIRALA ETA LARUNBATA

Montehermoso Kulturunea



#ChurrasConMeninas #migap

teatroparaiso.com

Antolatzaileak:

teklak

Komunikazio eta Audientzien Estudia
Estudio de Comunicación y Audiencias



Dirulaguntzak:

FUNDACIÓN **Vital** FUNDAZIOA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

TEATRO ANTZOKIA
PRINCIPAL!
VITORIA-GASTEIZ

Interreg
POCTEFA
MIGAP



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Laguntzaileak:



ConArte
INTERNACIONAL



aurkezpena

“Txurrak eta meninak.Arte-bitartekaritza mintegia”-n artearen eta hezkuntzaren arteko harremanari buruz hausnartuko dugu; gaur egun bi esfera horiek elkarreragiteko dituzten zailtasunak aztertu, hauek gainditzeko alternatibak partekatuko, eta bien arteko sinergiak sendotuko ditugu.

Testuinguru formal zein ez formaletan, lotura hau funtsezko gai bat da ezagutza eskuratzeko eta herritartasun kritiko bat sortzeko. Guzti hau, gero eta konplexuagoa eta anitzagoa den testuinguru sozial eta kultural batean. Hori dela eta, **“Txurrak eta meninak”**-en bitartez, bi errealitateen arteko elkarrizketa aktibatzea bilatzen dugu, agian gehiegitan, orbita oso ezberdinetan lan egiten baitute, euren errealitate eta inertzia partikularrak direla eta.

Arte-bitartekotza mintegi hau, *Mind the Gap* proiektuaren barruan garatzen da, Interreg POCTEFA programak finantzatutako proiektu europarra, pirineoz haraindiko 12 bazkideen ahalegina eta ezagutza biltzen dituena. *Mind the Gap*-ek elkarrizketan jartzen ditu kultura eta hezkuntza alorretan berritzaileak diren esperientziak, Espainian, Frantzian eta Andorran lan egiten duten eragile instituzionalen eta hezkuntza eta kultur eragileen gaitasunak hobetze aldera.

“Txurrak eta meninak” Teatro Paraisok, Teklak, Komunikazio eta Audientzien Estudioa, -rekin batera Arabako lurraldean ezartzen ari den 2018-2020 ekintza planaren barruan kokatzen da, zeinetan Hezkuntza Artistikoa eta Alfabetatze Kulturala bultzatu nahi den. Halaber, topaketarako, eztabaidarako eta ezagutzarako gune bat sortu nahi du, gure testuinguru hurbilera, erreferentziatzko ahotsak eta egungo esperientziak ekartzeko.

nori juzendua

- _ Irakasleak.
- _ Hezkuntza artistikoaren arloan interesa duten artista eta sortzaileak.
- _ Kultura edo gizarte-erakundeetan lan egiten duten hezkuntza artistikoko profesionalak (bitartekariak, kudeatzaileak, irakasleak, pedagogoak, etab.).
- _ Gizarte-hezitzaileak.
- _ Erakunde publikoak.

izen-ematea

- _ Hurrengo inprimakiaren bidez: <https://forms.gle/SdxJaUL9aUQA4FX67>
- _ Izen-emate epea 2019ko urriaren 2ra arte irekia.
- **Sarrera librea.** Toki mugatua (izen-ematearen ordena errespetatuko da)
- Informazio gehiago Paraiso Antzerkiaren [webgunean](#)



OSTIRALA, URRIAK 4

Goiza

- 10:00 **Mind the Gap proiektua, hezkuntza artistikoa**
Marta Monfort. Gasteizko Antzoki Sarea
Pilar López. Teatro Paraíso
Mikel Pérez. Vital Fundazioa
- 10:30 **Zein ondo legoke! Irakasleei zuzendutako formakuntza artistikoa**
Irene Intxausti, Teklak Komunikazio eta Audientzien Estudioa
Gasteizko irakasleei zuzendutako formakuntza-ibilbide bat da, eta hiru ikasturtetan zehar garatzen da. Bertan, Kulturaren balioa hezkuntza-tresna gisa lantzeko eta hiriko geletan artisten egoitzak egiteko aukera ematen da.
- 11:00 **Arte biziak eta hezkuntza: irakasleentzako baliabideak**
Andrea Arrizabalaga Lasa. Artaziak
Teatro Paraisorekin elkarlanean egindako lanetik abiatuta, arte biziak eta Hezkuntza hurbiltzeko sortutako material didaktikoa partekatuko da. Irakaslegoari arte-proposamenak gelan baliabide gisa sartzen lagunduko dieten dinamikak, ariketak eta erreferentziak.
- 11:30 Kaferako atsedena
- 12:00 **Kulturarekin hazi, familian, landa-eremuan eta hiri-eremuan**
Ander Elorza. Teklak, Komunikazioa eta Audientzien Estudioa
Pilar López. Teatro Paraíso
Hazteak, elikatu eta garatu esan nahi du. Baina, nola aplikatu kontzeptu horiek familia-audientziei? Bi esperimentazio-ildo aurkezten dira, eta horiek audientziei zuzenean hitz egin, Arteen bidez aurrera egin eta Kulturaren eremuan ernatzea eskatzen dute.

Arratsaldea

- 18:30 Ongi etorri instituzionala
- 19:00 **Art Thinking. Arteak, sistemari buelta emateko tresna gisa**
Carmen Oviedo. Pedagogías invisibles
Ohiko hezkuntza-sistemak, zentzumenak narkotizatzen dituzten prozedura eta metodologiaren bidez, baliorik gabe uzten gaitu gure gizarteko eragile kritiko eta eraldatzaile gisa. Artea hezkuntza-sistema zaharkitu eta pasibo horri buelta emateko tresna gisa ulertzen duen ekintza-esparru bat da 'Art Thinking', herritar aktibo eta kritikoa sortzeko helburua duena.
- 20:30 Networking guinea

LARUNBATA, URRIAK 5

Goiza

10:00 **EN RESIDÈNCIA. Hemen aurkitu dugu pentsatzeko gune bat**

Lluís Vallvé. Bartzelonako Hezkuntza Partzuergoa
 “Creadores En Residència”, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako artisten, ikasleen eta irakasleen artean partekatutako lan esparrua da. Ikasturte osoan zehar eta eskola-orduetan, diziplina eta belaunaldi ezberdinetako sortzaile garaikideek sorkuntza prozesuak garatzen dituzte, gazte talde batekin batera.

10:30 **La experiencia LÓVA: remando juntas**

Maria Isabel Diego Benito. Lehen Hezkuntzako irakaslea CPI Samaniego IPI-n.
 Maria Cristina Rioja Samaniego. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako musika irakaslea CEIP Luis Dorao HLHI zentroan.
 LÓVA (Opera, hezkuntza tresna bezala) Ikastaro batean zehar tutoreek egindako hezkuntza-proiektua da. Gela, zerotik abiatuta, opera bat edo musika-antzerki pieza labur bat sortzen duen konpainia bihurtzen da. Neska-mutilek, taldeetan antolatuz, libretoa idazten dute, eszenografia diseinatzeko, argiztapena, musika osatzen dute, komunikazioa eta abar.

11:00 **Planters: Arteetan eta Arteetatik heztea**

Roger Fernández Cifuentes. Agitart.
 Marc Francesch Camps. ConArte Internacional.
 “Planters” Eskoletan artisten presentzia ohikoa izatea sustatzen du, irakasle eta ikasleekin batera ikasturtean zehar proiektu artistiko bat garatzeko. Hitzaldi honetan artistaren rolean sakonduko da, sorkuntza artistiko hutsetik harago joaz, oinarrizko gaitasunen lana bultzatzeko, errespetua, elkarrizketa, identitatea, ahalduz, talde-lana, beste alderdi batzuen artean, hain zuzen ere.

11:30 Kaferako atsedena

12:00 **Hemengo esperientzien mahai-ingurua:**

I will be everything

Jemima Cano. Baratz Aretoa
 7 eta 11 urte bitarteko neska-mutilekin audientziak eta ko-kreazioa garatzeko proiektua, Europa Creativa-k finantzatua eta nazioarteko zazpi kultur eragilek bultzatua. Bazkide bakoitzak, bere herrialdean, tailerrak egiten ditu eskoletan eta beste hezkuntza-gune batzuetan “hemendik 50 urtera” gaiaren inguruan. Ia 3.500 neska-mutileen erantzunekin, herrialde ezberdinetan egiten den hizkuntza antzeko ikuskizun bat eraikitzen da.

0-6 Bizi!

Manex Izagirre. Tabakalera
 0-6 bizi! 0 eta 6 urte bitarteko haur eta familiei zuzendutako proiektua da. Bere helburuen artean daude: adin tarte honetako haurren heziketa eta sormena lantzea, zein gurasoen intereseko gaiak jorratzea. 0-6 Gunea modu kolektiboan eta parte-hartzailean diseinatu, eraiki eta martxan jarri genuen.

Dantzabideak

Fernando Sáenz de Ugarte. Dantzaz
 Dantza-konpainia batek ikasgelan egiten du lan, sormen koreografiko berriak sortuz ikasleekin,

eta, gainera, jendeari erakutsiko dizkio. Irakasleekin ere lan egiten da, ekoizpen horien arteko zubietan, konpainian eta jakintza-arlo desberdinetako programa pedagogikoetan arakatzeko. Bi munduren arteko topaketa bat, batasun eta bizikidetzak bideak sortzeko, bien arteko hurbiltasuna eta egunerokotasuna erakutsiz.

Espaciokrea

Jon Echeverria. Navarra Nuevo Futuro elkarte, Gizarte-hezkuntzarako Berrikuntza laborategia Hezkuntza-jardunaren berrikuntza gakoa da kolektibo honentzat. Espaciokrea, honen adibide da. Haur eta gazteen sormen-prozesua sustatzeko animazio eta partaidetza-jardueren programa honek ideiak eta talentua hezkuntza tresna gisa darabil. Bere egite sozioedukatiboaren oinarri diren printzipio metodologikoak azalduko dituzte.

13:15 **Tailerrak**

 A Taldea: **Cosmou.**

 B Taldea: **Zer gertatzen zait niri arte sorkuntzarekin?**

14:30 **Bazkaria**

Arratsaldea

16:00 **Tailerrak**

 A Taldea: **Zer gertatzen zait niri arte sorkuntzarekin?**

 B Taldea: **Cosmou.**

17:00 **Mahai-ingurua: Hutsunea bete**

Parte hartzen dute: Charo Garaigorta, Artium Museoa; Lluís Vallvé, Bartzelonako Hezkuntza Partzuergoa; Hannah Frances Whelan, Baratza aretoa; Hezkuntza alorreko Profesional bat. **Moderatzailea:** Pilar López, Teatro Paraíso.

18:30 **Artistak Egoitzan proiektuaren aurkezpena eta agurra.**

TAILERRAK

COSMOU

Gidaria: **Roger Fernández Cifuentes.** Agitart.

Asko dira landu beharreko alderdiak, fisikoa, espaziala, erritmikoa edota emozionala, dantzaren mundua ulertzeko. Tailer honen ardatzak norberaren gorputza, besteren gorputza eta espazio komunaren kontzientzia izango dira, erritmoaz eta musikaltasunaz ahaztu gabe. Pisuarekin, grabitatearekin, arintasunarekin, energiarekin eta musikaltasunarekin lotura landuko dugu. Era berean, musikaren eta dantzaren arteko loturaz jabetuko gara, eta musika oinarri hartuta dantza bizitzeko gai izateko beharrezkoak diren tresnez hornituko gara. Arropa eta oinetako erosok gomendatzen dituzte.

ZER GERTATZEN ZAIT NIRI ARTE SORKUNTZAREKIN?

Gidaria: **Jon Echeverria.** Asociación Navarra Nuevo Futuro.

Taldeak hausnartuko du nola kokatu, zergatik eta zertarako, haurrekin edo gazteekin arte edo sorkuntza prozesu bati ekin nahi zaionean.

AGITART

Figueresen egoitza duen dantza eta mugimenduaren dinamizatzailea. Proiektu artistikoak eta hezkuntza proiektuak koordinatu, antolatuta eta gidatzen dituzte. Dantza eta mugimendua ondasun sozial, kultural eta pertsonen garapenerako tresna gisa uztartzen dituzte. Konpainia Planters proiektuko artista taldearen parte da, “Figueres es Mou” dantza eta mugimenduaren jaialdia koordinatzen du eta Figueraseko udalarekin batera el Jardí Udal Antzokiaren dantza programa kudeatzen du.



Argazkia: Erika Prüfert

Navarra Nuevo Futuro Elkartea

Haurren eskubideen sustapenaren arloan lan egiten duen erakundea, Nafarroako babes sistemen zenbait dispositibo kudeatzen dituena, Latinoamerikan gazteen aldeko ekintzak bultzatuz (Nazioarteko Lankidetzako proiektuak), eta gizarte hezkuntzaren eremuan metodo-logia berritzaileak garatuz, besteak beste. ANNFK ere tokiko eta mugaz haraindiko sareak dinamizatzen ditu, eta ezagutza sortu eta hedatzen du bere gizarte-hezkuntzarako berrikuntza laborategiaren bidez. Navarra Nuevo Futuro elkarteak Mind the Gap-POCTEFA proiektuaren bazkide da.

Hezkuntza artistikoa eta bitartekaritza kulturalen aritzen den gizarte ekimeneko kooperatiba. Praktika eta metodologia artistikoak, ezagutzen partekatzea, eta eraikuntza eta eraldakeratako tresna baliagarriak diren ikasketa-prozesuak bultzatzen ditugu. Hezkuntza elkarren arteko hartu-eman gisa ulertzen dugu; elkarrizketaren bidez, harreman eta errealtate berriak sortzeko aukera duen espazio gisa. Proiektu honek izaera soziala dauka; aniztasun kultural eta desberdintasunetik abiatzen da, eta, aldaketa sozial, politiko eta kulturalak bideratzeko asmoz, pertsonon gaitasun kritikoa indartzea bilatzen du.

ARTAZIAK

Argazkia: Erika Prüfert

ConArte Internacional

Gazteen heziketa eta ahalduntzea du bere lanaren ardatz, eta arteen eta kulturaren bidez egiten du, hezkuntza formalean esku hartzeko proiektuak bultzatuz. Hori guztia osatzeko, formakuntzak emango dituztenak hezkuntza metodologietan trebatzen dira, arteen heziketa-gaitasunaren inguruko UNESCOren ibilbide-orriaren balioak oinarritzat hartuta betiere, arteak hezkuntzan izan dezaketen erabilerearen inguruko ezagutza sortzeko eta gizarte-eraldaketarako beste hezkuntza-eragile eta kultura-eragile batzuekin sarean dauden proiektuak garatzeko. Egun, Mind the Gap proiektuaren bazkidea da.





Playground Scene (2017). Laia Estruch. EN RESIDÈNCIA Juan Manuel Zafra institutuan

Bartzelonako Hezkuntza Partzuergoa eta Kultura Institutua

En Residència kultur arloan eragile publiko nagusia den (Kultura Institutua, Bartzelonako Udala) eta hezkuntza arloko eragile publiko nagusiaren artean (Bartzelonako Hezkuntza Partzuergoa) programatutako eta abian jarritako programa bat da. En Residència ekintza bateratutik sortua izan zen, kultura eta hezkuntza sistemen arteko ohiko banaketa gaindituz, eta bi errealitate hauen arteko ohiko eredia zalantzan jarriz. Programa ikuspegi bateratu eta partekatutako abiatuta eraiki da. Elkarrekin eraikitzeak sendotasun handia eman dio ekimenari, urte gutxian hiri programa bihurtu baita.

DANTZAZ

Ekoizpen zentroa, sormen laborategia, dantza konpainia eta enplegu zentroa. Horiek dira entitate aitzindari bat definitzen duten ezaugarriak, dantzari, koreografo eta sektoreko beste profesional batzuentzako lan aukerak sortzen dituen egitasmoa. Dantza ekoizpen zentro agortezina ere bada, tokiko eta nazioarteko sareetan integratua, etengabeko hedapen eta mugimenduan, dantzaren munduarentzat aukerak sortzea xede duena, kalitate, energia eta freskotasun zigilu batez betiere. Bere inguruari begira bitartekari-lan garrantzitsua egiten du, bitartekaritza eta sentsibilizazio proiektuak sortuz, dantzarako publikoak sortuz.



Irabazi asmorik gabeko elkarte da, artearen eta hezkuntzaren elkargunean kokatutako proiektuak garatzen dituena, bere helmuga sozialismo sortzailea izanik. Hezkuntza formaleko, ez-formaleko eta informaleko testuinguruetan eragiten du, hezkuntza-paradigma tradizionalei desafio egiten dieten proiektuen bidez. Ezagutza sortzeko erakundeekin (eskola, museoak) egiten dute lan, beren burua gizarte eraldaketarako eragile politiko gisa uler dezaten. 4 ekintza-ildoren bidez egiten dute: kultur bitartekaritza, artea + hezkuntzari zuzendutako ikerketa, irakasleen formakuntza eta komisariotza pedagogikoa.


PEDAGOGÍAS INVISIBLES

ARTIUM

Gasteizko Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoko Hezkuntza eta Publikoentzako Sailak era guztietako publikoetara zabaltzea du helburu gaur egungo sorkuntzaren gakoak. Hainbat ekimenen bidez, eta metodologia egoki batekin, obra edo erakusketa ulertzeko eta gozatzeko erraztasunak ematea da bere asmoa, pertsona bakoitzari bere interes eta beharretara egokitutako esperientzia esanguratsua eskainiz. Hezkuntza eta kultura programa guztiak behaketaren, ikerketaren eta lankidetzaren ondorio dira. Besteak beste, eskolako programak eta irakasleei formakuntza emateko programak garatzen dituzte.

BARATZA ARETOA

Gasteizen kokatua dagoen arte eszeniko garaikideetarako zentro independentea, non, bere espekto zabalenean, kultura-ezagutza, formakuntza, programazioa eta bitartekaritza elkartzen diren. Arrakala Kooperatibak kudeatzen du espazioa, eta, batez ere, bere praktika artistikoa talde profesionalean eta nazioartean beste lan batzuekin uztartzen duten artistek osatzen dute. Nortasun hori da, hain zuzen ere, sektorearen beharrei erantzuteko aukera ematen duena, espazioan gertatzen denaren balioa pasioz transmititu eta prozesuak, formak eta hizkuntza zaindu.



TEKLAK



Teklak sormena, ezagutza eta pentsamendu kritikoa sustatzen duten eragileei (kultur eragileak, gizarte eragileak, zientifikoak etab.) beren proiektuak martxan jartzen eta sendotzen laguntzen dien estudioa da. Nola? Tekla ezberdinak sakatuz: Audientzien garapenari eta komunikazioari lotutako proiektuak aztertuz, sortuz eta bultzatuz; proiektu hauen prozesuak ikus-entzunezkoaren bidez dokumentatuz; eta finantzaketa pribatua eta publikoa bilatzeko proiektuak gorpuzten lagunduz. Halaber, aipatutako jarduera-ildoan inguruko aholkularitza-eta formakuntza-zerbitzuak eskaintzen ditu.

TEATRO PARAÍSO

Duela 40 urte martxan jarri zen proiektua da. Gasteizen kokatua dagoen konpainia egonkor honek proiektu globala garatzen du non Antzerkia, Hautzaroa eta Hezkuntza Artistikoa elkarrekin esku-hartzen duten. Gainera, publikoa erakartzeko eta hezteko lan egiten du etengabe. Arlo honetan dihardutenek Paraiso Antzerkia enpresa berritzailetzat daukate, gai, formatu eta lan-metodo berriak lantzen baititu. Era berean, konpromiso irmoa du publikoarekin eta gizartearekin. 2012an Haur eta Gazteentzako Arte Eszenikoen Sari Nazionala jaso zuen Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eskutik.

Laurogeita hamar urtez tabako fabrika izan ostean, 2015. urtean Tabakalerak berriz zabaldu zituen atea hainbat erakunde eta proiektu batu eta inspiratzen dituen kultura garaikidearen nazioarteko zentro bilakatuta. Tabakalera osatzen duten askotariko proiektu eta erakundeek partekatzen duten misioa honako hau da: euskal gizartearen gaitasun sortzailea eta kritikoa garatzen laguntzea, aisialdi sortzaile eta parte hartzailea sustatuz.

TABAKALERA

